

# Marigorrinok Afrikan

XABIER ETXANIZ ERLE 2024ko abenduaren 06a



## ***Guardasolak euria nahi du***

Patxi Zubizarreta

Ilustrazioak: Irrimarra

Ibaizabal, 2024

---

Duela 30 urte argitaratu zuen Patxi Zubizarretak *Marigorrinok hegan* liburuxka; J. M. Lavarellok ilustratua eta Edebé argitaletxe katalanaren eskutik. Aspaldi honetan, baina, ikusten ari gara Euskal Herritik kanpoko argitaletxeei gero eta gutxiago interesatzen zaiela euskarazko haur produkzioa (Mariasun Landa, esaterako, Ereinera ekartzen ari da kanpoan zuena, edo Atxagak ez du, adibidez,

erdaraz plazaratu *Ata Pank eta Ate Punky* saila). Lehendik zegoena deskatalogatzeari ere ekin diote.

Politika horren ondorioz dugu Zubizarretaren lan hau esku artean. Ez da aspaldiko marigorringo hura baina bai ipuin hartatik abiatuta eginiko bertsio berri, gaurkotu eta osatua. Irrimarraren ilustrazio biziekin eta Ibaizabal etxeak plazaratua.

Neskatila bat dugu narratzaile, June, eta honela ekiten dio kontaketari: “Aurtengo udan, zeruari euria egitea ahaztu zaio. Zerua urdin-urdin dago eta inon ez da hodeirik ageri: ez hodeirik, ez trumoirik, ez euririk... ezertxo ere ez. Eta ezin egin inon igeri!”.

Lehortea, suteak, tenperatu altua, aldaketa klimatikoa (kilimatikoa Juneren hitzetan)... eta saltsa horren erdian amona Inesek guardasol bat pintatzea proposatzen dio ilobari.

Eta Junek hainbat esaera eta uste aipatu eta komentatuko ditu, lagunekin eta bere buruarekin ere, euria ekartzeko. Marigorringoan formula magikoa, gaizki kantatzea edo tximeleta hiltzea; eta Junek euria nahi duen arren ez du tximeletarik hil nahi eta eskuan duen liburua itxiz tximeleta hil beharrean parez pare irekitzen dio leihoa. Azkenean, txorroskileroa etorri da herrira, eta “zorrotzailea etortzen denean, horrek esan nahi du laster euria egingo duela!”, esaten dio amak.

Istorioak amaiera alaia du, Junek “plista-plasta, plisti-plust, mela-mela eta blai-blai!” kantatzen baitu ordurako Afrikan egongo den tximeleta gogoan.

Irrimarraren irudiek ederki islatzen dute narrazioaren tonua eta kontakizuna; testua are ulergarriagoa egiten dute eta txikiei kontatzeko moduko objektua bilakatu liburu hunkigarri eta eder hau.